



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Donostia Belle Epoque garaian: Bisitarien aisialdirako hiria.

OIHANE JUANENA MUGURUZA
ARTEAREN HISTORIAKO GRADUA
LETREN FAKULTATEA/FACULTAD DE LETRAS
UPV/EHU
Ikasturtea 2016/2017
TUTOREA: MARIA JESUS PACHO

LABURPENA

Turismoaren fenomenoa Donostiara XIX. mende amaieran heldu zen, Espainia eta Frantziatik udatiar ugari hasi ziren gerturatzen hiriburu gipuzkoarrera. Arrazoi nagusienetako bat hiriaren edertasun naturala zen, Conchako badiaren inguruko parajeak eta hondartzak ziren erakarpen nagusiak. Bestalde garai honetan tratamendu terapeutikoak oso presente zeuden, horiek zirela eta Maria Cristina erregina hirira urtero gerturatzen zen bere gorte guztiarekin, itsasoan bainuak hartu eta iparraldeko klimaz gozatzera. Hau zela eta noble eta burgesiaren gehiengoak, jaio zen garraibide berriaz baliatuz, hots trena, gortearen ingurura gerturatu nahi izaten zuen. Udan hiria eraldatu egiten zen, festaz eta jendez betetzen ziren kale eta plazak. Bestalde, aisialdia ardatz zuten tipologia arkitektoniko berriak jaiotzen hasi ziren: kasinoak, antzokiak, jolas-parkea, paseoak eta hotelak, joera eklektizista eta kontinente osoan hedatua zegoen Frantziako Bigarren Inperioaren baitan jaiotako proposamen arkitektonikoak aintzat harturik. Hauek hiriaren erdigunean kokatu ziren elkarrengandik oso gertu eta paseo ederrengandik oso ongi konektatuak.

Udatiar hauek gozamenerako bideratuak zeuden arkitektura tipologia ezberdin ugari zituzten eskuragarri hiriaren erdigunean. Hondartza zen hauen sozializatorako gune nagusi bat, bertan etxolatxoak kokatu ziren. Bestalde hondartza alboan eraiki zen bainuetxe ederrera ere gerturatzen ziren. Esan gabe ezin dugu utzi Igeldo Mendian hauen dibertimendurako ireki zen jolas-parkea. Arratsaldeak Kasino Nagusian igarotzea zen ohikoena, behin gaua heltzean Victoria Eugenia Antzokiak atea zabaltzen zituen eta ekitaldiez jantzen zen. Denbora gutxian, Donostiak arkitektura bikaineko ereduak ikusi zituen bai tipologia berriko ereduak, bai eraberrituak, hiriaren izaera behin-betiko eraldatuz. Horretarako hiriak Frantziara jarri zuen begirada, hiri turistiko nagusien arteko lehiaketan barneratu zen. Biarritz, Burdeos, Montecarlo bezalako hiri ederren pare jartzen hasi zen. Horretarako bere edertasun naturala bazuen baina zerbait gehiago behar zuen, eraikin ikusgarriak. Honela Frantziako hirien moduan Bigarren Inperioko estiloaren handitasunean oinarritu zen.

Beraz hiriak eraldaketa ugari jasan zituen udatiar berrien gustuen mesedera. Zenbait donostiarren ustetan hiriak bere euskal nortasuna galdu zuen. Hala eta guztiz ere bide beretik jarraitu zuen gaur egunera arte, egun hiri turistiko nagusi bat izaten jarraitzen du.

AURKIBIDEA:

1. Sarrera: Gaiaren interesaren justifikazioa, metodologia eta helburuak	4
2. Aurrekari historikoak.....	7
2.1 Aldaketen garaia	8
3 Donostia hiri turistikoa (1865-1923)	9
3.1 Gida, hiri turistikoko baten tresna	11
4 Espazioa eta arkitektura	12
4.1 Hondartzako etxolak.....	13
4.2 Bainuetxea	16
4.3 Jolas parkea	17
4.4 Kasinoa	20
4.5 Antzokia	23
5 Ondorioak.....	25
6 Bibliografia.....	28

1. Sarrera: Gaiaren interesaren justifikazioa, metodologia eta helburuak.

Jantzi dotoreak, eraikuntza monumentalak, pasealeku xarmantak, jende liraina, parke ederrak, dotoreziaz beteriko paisaiak... garai eder batean, hiri eder batean. Gauza bera izango litzateke esatea, Donostia XIX eta XX. mende artean. Ezatsegin terminoak ez zuen lekurik hiriburu gipuzkoarrean. Guztia edertasun eta dibertimendura mugatzen zen. Hiriak eraldaketa nabariak jasan zituen garai hartan, baina arrazoia bakarra zen, turismoa.

Lan honen bidez, hirira turismoaren fenomenoak heldu zenean zer nolako aldaketak eman ziren ikusiko dugu, sozializatorako ohitura berriak nola jaio ziren eta batez ere bisitarien bilgune nagusiak zein ziren ikusiko dugu. Horretarako arkitekturan zentratuko naiz, zer nolako eraldaketak eta berrikuntzak eman ziren izango dugu aztergai. Intuiziozko ideia hau gehien batean Yasmina Grandioren *Urbanismo y arquitectura ecléctica en San Sebastián* lanaren bidez eraman dut aurrera, hiriko eraikuntza nagusiak bertan biltzen baititu¹.

Gai hau hautatzearen arrazoia nire gustu pertsonala izan da. Betidanik interesa sortu dit garai honek, urte hauetako eraikinen dotoreziak, garaiko gizarteko ohiturek, besteak beste, antzerkietara, kasinoetara joateko ohiturek, garaiko modak... Gainera nire gertuko hiriburuan eman zen garai bat da eta erreferentzia gisa, gustuko ditudan beste hiri batzuk hartu zituen, beste hainbaten artean, Biarritz. Hori dela nire gustuak biltzen dituen lan egoki bat egin nezakeela pentsatu dut puntu hauek bilduz eta landuz. Bestalde, unibertsitatean gai honetan sakontzeko aukera izan ez dudanez gradu amaierako lana, honi eskaintzea egokia iruditu zait.

Azkenik esan, Artearen Historiako Graduko ikaslea izanik, ikusi dut gure ikasketa prozesuan ia beti artelan konkretuetan zentratu garela, hau da, pintura, eskultura, arkitektura, edo estilo batean. Orain hau beste modu batean planteatzen saiatuko naiz. Nire analisiaren oinarria gizarte berri baten egituraketa izango da, honela, gizarte horretako jendearen gustuen arabera hiri bat aspektu guztietan nola eraldatu daitekeen landuko dut.

Metodologiari dagokionean, ikerkuntzaren bidean koka nezakeen lan bat egingo

¹ GRANDIO, Y., *Urbanismo y arquitectura ecléctica en San Sebastián 1890-1910*, Donostia, Grupo de camino de historia donostiarra, 1987.

dudala esan nezake. Izan ere, lanean zehar ikusiko dugun moduan, jatorrizko dokumentuak, hemeroteka digitalak eta bibliografia ezberdinak landu ditut.

Hurbilketa bibliografikoari dagokionean ikusi ahal izan dut azken urte hauetan gaiaren interesa areagotu egin dela eta benetako bide akademiko bat egina dagoela. Honela turismoa eta hiriaren arteko harremanaren inguruan idatzi beharreko atalak zehaztu eta banatu ostean kontsulta bibliografikoak egiten hasi naiz. Landu nahi ditudan kontzeptu ezberdinen hautapena mugatu behar izan dut, gaia nahiko zabala izan daitekeela ikusi dut eta. Honela hurrengo datuak bilatzen hasi naiz:, turismoaren hastapenak Europan naiz Euskal Herrian, hirigintzaren proposamen ezberdinak eta Donostiako XIX. mendeko tipologia arkitektoniko berrien agerpena.

Bestalde, ingurua kronologikoki mugatzea ere gomendagarria zela iruditu zait, honela, nire lanaren kronologia Donostiako 1813ko sutearekin hasiko litzateke eta amaiera Miguel Primo de Riveraren diktadurarekin (1923-1930) emango litzateke, jokia debekatua geratu zen unean².

Hau argi izanik, nire egitura mamitzen hasi naiz, horretarako mota ezberdinetako iturriak bilatzen hasi naiz, honela Jose Antonio Ramirezen planteamendua jarraituz lehen mailako iturriak izango genituzke alde batetik, hau da planoak, jatorrizko testuak, gidak... eta bestetik, bigarren mailako iturriak³.

Bigarren mailako iturriekin hasiz, Miguel Arsuagaren eta Luis Seseren *Donostia- San Sebastián: guía de arquitectura* elkarlanaz baliatu naiz eraikinen lehen hautapena egin eta lehengo ideiak planteatzerako orduan⁴. Bertatik abituz, Donostiako historiari buruz idatzi den eta hainbat edizio atera dituen Miguel Artola historialariaren lanetara abiatu naiz, edizio berrienarekin geratuz (2004)⁵.

Arkitekturaren atalean barneratzeko orduan, Yasmina Grandioren lanetik abituz monografiatarazuzenduz naiz, esaterako hiriko kasinoei buruz, Sada eta Hernandez-ek

² Miguel Primo de Riveraren diktadurarekin jokia debekatua geratu zen (1924ko urriaren 31an), hortaz kasinoen bizitza amaitua geratu zela esan genezake.

³ RAMIREZ, J.A., *Cómo escribir sobre arte y arquitectura*, Barcelona, Ediciones del Serbal, 1996.

⁴ ARSUAGA, M., SESE, L., *Donostia- San Sebastián: guía de arquitectura*, Donostia –San Sebastián, COAVN, 1996.

⁵ ARTOLA. M., *Historia de Donostia- San Sebastián*, Donostia-San Sebastián, Nerea, 2004.

idatziriko *Historia de los casinos de San Sebastián. Siglos XIX y XX*⁶ elkarlana izan dut *oinarri*. Kasinoaren inguruan asko idatzi dela ikusi dudana moduan, Igeldoko jolas parkearen inguruan ez dela ia ezer idatzi ikusi dut, bide hau landu gabe dagoela konturatu naiz, honekin ikerkuntzarako bide hori zabalik dagoela ere ezagutzara eraman nahi dut.

Bestalde garaiko dokumentuen bila abiatu naiz horretarako Koldo Mitxelena hemeroteka digitala kontsultatu dut⁷. Euskal Erria aldizkaria izan da kontsultatu dudana aldizkaria, iturri primario bat izanik ezin hobea iruditu zait XIX. mendean barneratzeko zuzeneko informazio hau izatea, askotan hiriko ohitura ezberdinei buruz edota eraikitzen ari diren eraikin berriei buruz hitz egiten baitzaigu⁸. Iturri primarioekin jarraiki, Antonio Cortazarren jatorrizko Plan Urbanistikoarekin ere topo egin dut⁹. Hau Gipuzkoako Foru Aldundiko errepertorio digitala kontsultatuz aurkitu dut¹⁰. Hirigintzaren aldaketak ezagutzeko iturri ezinbestekoa izan zait. Donostiako Udalaren Hemeroteka Historikoa nahiz Euskal Herriko Arkitektura Ikerkundera, biak online, kontsultatzea ere aproposa izan da, hauei esker XIX. mendeko hiriko planoak nahiz eraikin berrien planoak eskuratu ahal izan ditut, esaterako Donostiako Kasinoko jatorrizko planoak¹¹.

Landu ditudan iturri ezberdinekin amaitzeko 1909an idatzi zen Donostiako turismo gida hartu dut, garaiko bisitarientzat egin zena, hau jatorriz 1909. urtean argitaratu zen baina

⁶ SADA, J., HERNANDEZ, T., *Historia de los casinos de San Sebastián, siglos XIX y XX*, Donostia- San Sebastián, Nuevo Gran Casino del Kursaal, 1987.

⁷ Koldo Mitxelena Kulturenea Liburutegiak XIX.mende amaiera eta XX. mendearen hasiera tarteko euskal prentsako 40 titulu baino gehiago ikuskatzeko sarbidea edo aukera eskaitzen digu. Online kontsultatu ahal da hurrengo esteka honetan:

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAzokoPrensaWEB/izenburuAurkibidea.do?lang=eu>

⁸ *Euskal-Erria* aldizkaria 1880.urtean jaio zen euskal aldizkaria, fundatzailea José Manterola izan zen.

⁹ Antonio Cortazar, gipuzkoar arkitektoa izan zen, Donostiako zabalkundearen egilea. Gipuzkoako hiribururako 1862.urteko azaroaren 8an aurkeztu zuen *Porvenir* lemaaren baitan hirigintza proiektua: CORTAZAR, A., *Memoria descriptiva del proyecto de Ensanche de San Sebastián presentado al concurso con el lema "Porvenir"*, Donostia-San Sebastián, Imprenta de Ignacio Ramón Baroja, 1864.

¹⁰ Zerbitzari hau, Meta, GFAko Kultura eta Euskara Departamentuak kudeatzen dituen funtsa digitalen sarrera irekiko repositorioa da. Hemen, etengabe hazten doazen funtsak aurkitzen dira. Esteka honetan ikusgai: <http://meta.gipuzkoakultura.net/?locale=eu>

¹¹ Hurrengo estela honetan ikusgai: <http://intranet.pogmacva.com/en/obras/49219> (2017/04/07)

nik 1998. urteko edizioa eskuratu dut, *Guía ilustrada para el viajero en San Sebastián*¹². Hau nire lanerako oso interesgarria iruditu zait azken finean nire lanaren ardatza izango diren udatiarrek eskuetan honelako bat izango baitzuten. Dibertsioa eta aisia ardatz izanik mota guztietako informazioa eskaintzen digu gida honek. Horregatik iturri honen analisiari atal bat eskaintzea erabaki dut nire lanean. Azkenik esan, gida honen erabileraren bidez lan akademiko baten egitura tradizionalarekin nahi izan dudala hautsi, XIX. mendeko bigarren erdialdeko Donostiatik bidai bat egitera gonbidatuko dut irakurlea bertako arkitektura monumentala ezagutzeko asmoarekin.

Lan hau aurrera eramateko galdera ezberdinak planteatu nitzake: XIX. mendean turismoaren fenomenoak nola eraldatu zuen Donostiako hiria? Honekin batera, ze tipologia arkitektoniko berri jaio ziren hirian? Ze ildo berri hasi ziren kontuan hartzen? Paisaia, aisialdia, natura... Orokorrean turismoa izan zen XIX. mendeko fenomeno berri hark, hiri baten izaera zer modutan alda zezakeen landu nahiko nuke. Honela, lan honen bidez lortu nahi dudana, galdera horiei erantzuna ematea izango da. Analisi honen oinarri nagusia udatiarren dibertsiorako joera izango da, hauen mesedera hiria nola eraldatu zen erakutsi nahi dut lan honen bitartez, zenbaitetan hiriaren nortasuna albo batera utziz.

Bestalde gaur egungo turismoaren erroak zein diren ikusiko dugu, XIX. mendeko hiri turistiko ideal hori gaur egun zer izatera heldu den eta ze bide hartzen ari den ondorioztatuko dugu.

Eduki hauek landuz, graduan zehar landutako proposamen metodologikoak praktikara eramango ditut eta iturri ezberdinak kontsultatuz eta landuz inbestigazioaren esparrua ere ezagutuko dut. Bestalde laugarren mailako ikaslea izanik graduan zehar ikasitakoa praktikan jarriko dut, eraikinen analisisetan ikusiko dugun moduan. Guztia lan akademiko egoki bat burutzeko asmoz.

2. Aurrekari historikoak

XIX. mendean kokatu behar gara Donostian. Fernandez Cuesta, Oviedoko

¹² I.g, *Guía ilustrada para el viajero en San Sebastián*, Donostia, Al y Mar, S.L., 1998

katedradunak, bere artikuluan hiriari buruz hurrena dioen moduan:

“...constituye un claro ejemplo de la capacidad de la burguesía para construir una ciudad a la medida de su voluntad y de sus necesidades y, al mismo tiempo, un paradigma del urbanismo heredado del modelo de gestión que sirvió para dirigir el crecimiento espacial de las ciudades españolas entre 1862 -1956, cuyo más claro exponente fueron los ensanches”¹³.

Honela jarraian testuinguru horretan barneratu behar gara, garaian hiriak sufritutako eraldaketa ikertuko dugu, guztia garaiko fenomeno berriaren mesedera; turismoa.

1808. urtean, Independentzia Gerra garaian Napoleonen tropa frantsesek hiria hartu zuten, eta 1813an hiria setiatu zuten. Honek hiria suntsitu zuen sutea ekarri zuen, abuztuaren 31an gertatu zen hau. Honen aurrean hiriko biztanleak Zubieta auzoan bildu ziren. Bertan hiria berreraiki behar zela erabaki zuten, hiria eraikitzeko plan berriak behar ziren, honela hiriaren berregitea eta honekin etorri zen hazkundera abian jarri ziren XIX. mendean¹⁴.

2.1 Aldaketen garaia.

Gipuzkoak hiriburu aldaketa sufritu zuen 1858.urtean, ordura arte Tolosa genuen. Hiriburu berria aukeratzearen arrazoi nagusia bere kokagunea zen, itsasoaren ondoan zegoen eta Frantzia eta Espainiaren bitartekari bikaina zen, hortaz, administraziorako zerbitzu berri guztiak bertan finkatzen hasi ziren¹⁵.

Hiriburu berriak hiritarren beharrak ase behar zituen, hortaz 1864. urtean eraldaketa urbanistiko baten barnean barneratu zen. Fernández Cuesta-ren hitzetara itzuliz, fabrikak jaiotzen hasi ziren hirian baina hauen presentzia hiriaren erdigunean debekatua geratu zen, hauek hiriaren periferian altxa behar ziren. Ondorioz, hirian klase sozialen arteko bereizketa argi bat geratu zen. Langileen etxeak periferian kokatu ziren, udatiar eta burgesiaren etxeak hiriaren erdigunean kokatu ziren bitartean¹⁶. Fabrika

¹³ FERNANDEZ CUESTA, G., “San Sebastián: un modelo de construcción de la ciudad burguesa en España”, *Ería*, 88 (2012) 101-128 orr.

¹⁴ MUÑOZ ECHABEGUREN, F., *¿Qué sucedió en San Sebastián el año 1813?*, Donostia- San Sebastián, Michelena, 2013.

¹⁵ CASTELLS, L., “La Bella Easo”, in ARTOLA, M (zuz.), *Historia de Donostia- San Sebastián*, Donostia- San Sebastián, Nerea, 2004, 99-133 orr.

¹⁶ FERNANDEZ CUESTA, G., *op., cit.*

ezberdinak jaio ziren hirian, hauek lanpostu ugari sortu zituzten, probintziatik jende ugari hurbiltzen hasi zen. Industria eta merkatua honela egonik, 1899an Banco Guipuzcoano bankuak ateak ireki zituen. Luis Castells-ek dioen moduan helburu bat zuen honek: “el fomento del ahorro y la captación del pequeño capital”¹⁷.

Industria ez zen jendea gerturatzearen arrazoi bakarra izan, lurrun-ontzia eta trenaren sorrerak hirian eragina utzi zuen. 1864.urtean Madrid-Irun trenbidearen inaugurazioa izan zen, batez ere Madriletik jende ugari gerturatzen hasi zen hirira uda igarotzera¹⁸. Honekin batera jendeak uda igarotzeko helmuga Donostia zergatik aukeratu zuen azaltzen duen beste arrazoi bat ere badago: Isabel II.aren bisitak eta ondoren Maria Cristina erreginaren bisitak zirela eta lortu zuen fama izango litzateke¹⁹. Hiri ezberdinetatik gerturatzen zen jendea, hiriko parke eta paseoak jendez betetzen ziren, Castellsek dioen moduan jendea inguruaz gozatu eta nabarmentzera gerturatzen zen²⁰. Honela hiria hazten eta aberasten hasi zen, irudi ederra zuen, industria eta merkataritza portuen arrastorik ez baitzegoen hiriaren erdigunean. Aisialdia eta dibertsioa ziren hiriaren ardatz nagusiak. Donostiak izaera berezi bat bereganatu zuen denbora gutxian.

1916. urtean gauzak aldatzen hasi ziren, Lehenengo Mundu Gerraren amaierak eta Espainiako klase langilearen gatazkak hiriburu gipuzkoarrera heldu ziren. Hauek propaganda turistikoari min egiten zioten, ondorioz hiria bisitariak galtzen hasi zen. Esan liteke hiriaren “Belle Epoque” edo garai ederraren amaiera etorri zela.

3. Donostia hiri turistikoa (1865-1923)

Turismoaren kontzeptuaren jaiotza eta aldi berean udatiar kontzeptua aro modernoko sorkuntzak dira, Europar XIX. mendean zehar hedatu zirenak. Turismoaren

¹⁷ CASTELLS, L., “La Bella Easo”, *op. cit.*

¹⁸ Compañía de los Caminos de Hierro del Norte trenbide konpainiaren eskutik. Turismoa eta trenbidearen sarea hedapenaren arteko harremanari buruz: VALERO, A., “Chemin de fer et tourisme. L'exemple de Norte Principal (1877-1930) *Mélanges de la casa de Vélasquez (époque contemporaine)* XXVII, 3, 1991, 5-46 orr. Eskuragarri hurrengo esteka honetan: http://www.persee.fr/doc/casa_0076-230x_1991_num_27_3_2592 (2017/03/24)

¹⁹ Bere osasun arazoak zirela eta medikuak bainuetxeetara joatea aholkatu zion, honela, Gipuzkoako hiriburura gerturatu zen hainbatetan, besteak beste, 1845, 1865 eta 1868. urteetan.

²⁰ CASTELLS, L., “La Bella Easo”, *op. cit.*

kontzeptua Ingalaterrako hegoaldeko kostaldean jaio zen, XVIII. mendearen erdialdean orduan hasi baitziren modan jartzen bainuetxeak. Ilustrazioaren baitan, arrakasta izaten hasi zen ur mineral bidezko osasun tratamenduak, hauek zientifikoki hasi ziren ikertzen, medikuntzaren adar bat kontsideratzen hasi ziren. Alcaidek erakutsi duenez, XVIII. mendeko izaera arrazionalista horren baitan, mediku eta intelektualak hainbat tratatu idazten hasi ziren ur mineral eta itsasoko uraren izaera sendatzailea justifikatuz²¹. Honela tratamendu hauek jasotzen lehenak gorteko kideak izan ziren, horregatik bainuetxeek hauen bisitak jasotzen zituzten batik bat, gerora pixkana burgesarengana zabaldu zen. Hauen artean paper garrantzitsua izan zuten emakumeek²². 1910. urtetik aurrera, etxe barnetik atera eta bere aisialdiaz disfrutatzen hasi ziren. Regina G. Schlüter-en hitzei jarraiki, XIX.mendean emakume bidaiariaren irudia guztiz sendotu zen. Emakume diruduna, dotorea, eta independentea zen bidaiariaren profil ohikoena. Askotan bakarrik bidaiatzen zuen baina baita haur eta zerbitzariekin batera. Mundua bere kaxa ezagutzen hasi zen ordu-arte gizonak soilik eskuragarri zituzten luxuez gozatuz²³.

Gure lurraldean turismoaren fenomenoak Zestoako bainuetxea ireki zen unean (1806) hasi zela esan genezake. Honetara bisitari ugari gerturatzen ziren, bertatik Urola ibaia jarraituz Zumaia ezagutzen zuten, baita Deba eta Zarautz ere. Hau ere bide bat izan zen bisitarien Donostia ezagutzeko, orduan ez baitzen Donostia bainuetxeegandik ezaguna. Madril ingurutik gerturatzen ziren udatiar gehienak, Carlos III. aren garaian aberastu zirenak, bizi kalitate bikaina bilatzen zuen, hortaz iparraldeko klima eta bainuetxeak ezin hobeak zitzaizkien²⁴.

²¹ ALCAIDE, R. “La introducción y desarrollo del higienismo en España durante el siglo XIX. Precursores, continuadores y marco legal de un proyecto científico y social” *Scripta Nova. Revista electrónica de Geografía y Ciencias Sociales*, 50, 15/10/1999 Eskuragarri esteka honetan: <http://www.ub.es/geocrti/sn-50.htm> (2016/04/13)

²² BEASCOECHEA, J.M., “Veraneo y urbanización en la costa cantábrica durante en siglo XIX: Las playas del abra de Bilbao” *Historia contemporánea*, 25, 2002, 181-202orr.

²³ SCHLÜTER, R., “Mujer y turismo. Vestimenta e interacción social en los centros turísticos de Argentina durante la década de 1930”. *Cuadernos de Turismo*, 21 (2008), 181-199 orr.

²⁴ LARRINAGA, C., *Balnearios guipuzcoanos, 1776-1901 turismo de salud e inversión de capital en aguas minerales*, Donsotia- San Sebastián, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País- Comisión de Gipuzkoa, 2014.

3.2 Gida, hiri turistiko baten tresna

Hiriak mota guztietako erraztasunak eskaintzen zizkien bisitariei, hainbat gauzen artean gida turistiko bat diseinatu zuen udalak. Honela jarraian 1909. urteko Donostiako gida ezagutuko dugu, azken finean hau baitzen hirira gerturatzen ziren udatiarrek hiria bisitatzerako orduan eskuetan izaten zuten tresna.

Gaur egun pentsatzen da lehengo gida turistikoa 1160. urtean idatzi zen Codex Calistinoaren zati bat izan zitekeela, hau Aymeric Picaud monje beneditar frantsesarengandik izan zen idatzia. XII. mendean Donejakue bidea zuzen egiteko manual bat zen. Baina Errenazimendu eta Barrokoan zehar hasi ziren gida gehien egiten, inprentaren sorrerarekin bat eginez. Hala ere Erromantizismoarekin etorri zen hauen erabileran gorakada, Espainian bide-sareen egokitzapen eta garraiobide berrien agerpenarekin, burgesia eta aristokrazia bidaiak egiten hasi zen, hortaz hauek erabiltzen hasi ziren. Egia da gida hauek nahiko garestiak izan ohi zirela, hortaz jende dirudunak soilik eskura zitzaken²⁵.

Espainian argitaratu zen lehenengotariko turismo gida daukagu Donostiakoa²⁶. 1909. urtean izan zen argitaratua Imprenta Martín, Mena y C-ren eskutik. 175 orrialdez hornitua dagoen DIN A6 tamainako liburuxka bat da eta gaztelaniaz dago idatzia gidaren gehiengoa, amaieran frantsesez gida osoaren laburpen bat dago. Liburuxkaren sarreran aurkibide labur bat aurkezten zaigu “Indicador general para el Forastero” izenburupean eta bertan gidan zehar aipatzen zaizkigun Donostia inguruko herrien zerrenda agertzen zaigu; Pasaia, Erreteri, Lezo eta Irun besteak beste. Orri bakoitzean bi motatako informazioa eskaintzen zaigu, alde batetik gidaren eduki idatzia izango genuke eta bestetik tokiko publizitatea, denda, kafetegi, hotel zein jarduera ezberdinen ingurukoa.

Gida, Donostiako erakarpen nagusiena zenaren inguruko informazioa ematen hasten zaigu, hau da, Conchako hondartzari buruz. Deskribapen zehaztua da, hondartza eder eta bakar gisa azaltzen zaigu, gidak irakurlea bertara gerturatzea du helburu, horretarako galdera irekiak agertzen zaizkigu hurrengo honen moduan: “¿Hay ciertamente playa

²⁵ GARCIA MELERO, J.E., *Literatura española sobre artes plásticas II*, Madrid, Ediciones Encuentro 2002, 195-202orr.

²⁶ I.g, *Guía ilustrada para ... op.cit.*

más linda y risueña que la Concha?”²⁷. Honekin bisitariaren jakin mina pizten dela esan genezake. Hondartza azaldu ondoren hiriko eraikuntza nagusien informazioa ematen zaigu, argazki baten bidez lagundua. Ondoren inguruko herrietara txangoak proposatzen zaizkigu, besteak beste, Zarautz, Hernani eta Pasaiara. Bisita hauek uztailean zehar egitea gomendatzen da, abuztuan Donostia festaz janzten baitzen. Honela jarraian festa hauen inguruko informazioa ematen hasten zaigu gida. Besteak beste, zezenketak, Boulevard-eko kioskoan ospatzen ziren udal bandaren kontzertuak, Urumea ibaian ospatzen ziren su artifizialak veneziar txalupetan ikusteko aukera, hipikako lasterketak eta Kasino Handiko festak azaltzen zaizkigu.


Gidan beste mota bateko informazioa ere ematen zaigu, tren ordutegiak eta prezioak, hiriko mapak, argazkiak, zezenketak nahiz zaldi lasterketak ikusteko sarreraren prezioak edota hirian horren ospetsuak ziren estropaden egitarauak. Azken finean hirira gerturatzen ziren bisitariari interesatzen zitzaizkien jardueren inguruko informazio praktikoa.

Iragarkiekin amaituz, komertzio ezberdinen informazioa aurki dezakegu; jatetxeak, arropa dendak, ile-apaindegiak, elikagai dendak... Gehienetan establezimendu bakoitzaren argazki bat agertzen zaigu eta alboan, ordutegi, kokapen eta salgaien informazio zehatza.

Gida hau oso baliagarria da garaiko udatiarrek bisitatzen zituzten esparruak ezagutzeko, azken finean liburuxka honek esaten baitzien nora gerturatu behar ziren. Hiriko eremu nagusiak zein ziren berresten digun iturri zuzen bat da, horregatik lan honetarako duen balioa azpimarratu nahiko nuke. Honela jarraian, gida hau eskuragarri zuen udatiar baten lekuan jartzera gonbidatuko dut irakurlea, gidak aipatzen dituen sozializaziorako gune nagusietara gerturatuko gara.

4. Espazioa eta arkitektura

Jarraian Donostiara gerturatzen ziren udatiarren egunerokoa nolakoa izan ohi zen ikusiko dugu. Horretarako hirian jaiotzen ari ziren eraikin eta eremu berriak aztertuko



1. Irudia: 1900.urteko hiriko mapa. Iturria: Donostia-San Sebastián, Untzi Museoa

²⁷ I.g, *Guía ilustrada para ... op.cit.* 13 orr.

ditugu. Hauek Cortazarren Plan Urbanistikoan egokitu behar izan zuten. Donostiako sutearen ondoren hiria berregin behar izan zen, berregite honen egilea Antonio Cortazar izan zen, honen proiektua, “Porvenir” lemaren baitan aurkeztu zuen eta Ugartemendiaren proiektuko hainbat ideia arrakastatsurekin izan zen uztartua. Hiri turistiko bat proposatu zuen. Hortaz hiriaren erdigunea udatiar eta goi-mailakoentzat erreserbatua geratu zen²⁸. Eraiki ziren tipologia arkitektoniko berriak ezagutzeko zergatik ez dugu zabalguner berri honetatik paseo bat ematen? Garaiko udatiarrak nora joango lirateke? Horretarako jarraian ikus dezakegun mapan zenbatuak dauden helmuga ezberdinak bisitatuko ditugu (1. irudia).

4.1 Hondartzako etxolak

Esnatu eta gosari eder baten ondoren zer hobe hondartzan bainu lasai bat hartzea baino? Bertan indarrak hartu eta hiria bisitatzeko eta udako egun luzeez gozatzeko prest egongo lirateke udatiarrak. Conchako hondartza, hiriko jendearen, burgesiaren zein udatiarren bilgune nagusienetako bat zen. Jada 1848. urteko testigantzek hondartza hauen edertasun eta garrantziaz hitz egiten digute, Madrazoren lanean irakur dezakegun moduan:

“La playa de San Sebastián cuenta con muchos apasionados, su tersa planicie, su finísima arena, y hasta la misma figura de una concha perfecta que tanto la embellece justifican en alto grado esta pasión muy arraigada entre los bañistas”²⁹.

Hondartza hau udatiarrak gustura eta eroso egon zitezten mota guztietako azpiegitura edo zerbitzuez hornitua zegoen, besteak beste, etxolatxoak eta emakumeen zonaldea zaintzen zuten zaindariak aurki zitezkeen. 1929. urtean udalak legedi bat ezarri zuen hondartzako bainuen inguruan, gizonen eta emakumeen eremuak banandu ziren eta ordutegi bat ezarri zen. Emakumeak goizean zehar soilik egon zitezkeen hondartzan aldiz gizonezkoak egun osoan zehar gertura zitezkeen.

²⁸ MARTÍN RAMOS, A., *Los orígenes del ensanche Cortazar de San Sebastian*, Barcelona, Archithemas, 2004.

²⁹ Francisco de Paula Madrazo Bartzelonako publizista eta kazetaria izan zen. Gipuzkoan zehar 1848. urtean bidaia bat egin zuen: MADRAZO, F.P., *Una expedición a Guipuzcoa en el verano de 1848*, Madrid, Imprenta de Don Gabriel Gil, 1849, 99-142orr.

Hasiera batean erosotasun falta zegoen honela, pixkanaka hondartzan etxolak agertzen hasi ziren³⁰. Hauen funtzio nagusia Alberto Fernandez-D'Arilas de la Peñaren arabera, modu seguru eta komodo batean bainulariak lehorretik itsasora garraiatzea zen³¹.

Lehenengo etxolaren eraikitze dataren inguruan dudak dauden arren, jakina da egilea Gabriel Laffitte izan zela, eta Luis Murugarrenen hitzak jarraiki 1830. urtean eraiki zela azaltzen zaigu. Honen inguruan etxolatxo ezberdinak hasi ziren kokatzen, tamaina txikikoak ziren³². Oin-planta laukizuzena zuten, gurpil txiki batzuekin, egurrezko listoi batzuez osatzen zen gainerako egitura. Ez zuten ez leiho eta ez aterik. Neguan hauek hondartzatik atera eta pintatu egiten ziren,



2. irudia. 1909. urteko hiriko kartela. Iturria: Bilboko Arte Ederren Museoa.

txuri-urdinak izan ohi ziren. Uretara idien bidez

gerturatzen ziren. Lopez Alen-ek 1909an bertan argitaratu zuenez hiriaren ikur bilakatu ziren³³. Hori garaiko zenbait karteletan ikus daiteke (2. irudia).

1845. urtean bigarren Erret-etxola eraiki zen, Isabel II arentzat. Bere zerbitzurako Donostiako udalak egurrezko etxola bat eraiki zuen Conchako hondartzan, garaiko Hotel Continental-en parean³⁴. Oin-planta karratuko egitura bat zen, balkoi batez inguratua zegoen. Lau isurialdeko estalki bidez zegoen estalia, estruktura osoa atoian eramane zitekeen ur hertzera. Barnealdeari dagokionean ez dakigu nolakoa zen. Kanpo estruktura ezagutzeko gaur egun irudi bakarra daukagu, George Carpenter-en garaiko

³⁰ MURUGARREN, L., *San Sebastián Donostia*, Donostia- San Sebastián, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1978, 299-321 orr.

³¹ FERNANDEZ-D'ARILAS DE LA PEÑA, A., "Una incursión en el patrimonio marítimo donostiarra. Las casetas de baño, germen de la arquitectura balnearia", *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 6 (2009), 343-368 orr. Esteka honetan berreskuragarri: http://um.gipuzkoakultura.net/itsasmemoria6/343-368_fernandezdarlas.pdf (2017/04/06)


³² MURUGARREN, L., *op., cit.*

³³ LÓPEZ ALÉN, F., "Cosas donostiarras. Las primeras casetas", *Euskal-Erria: revista bascongada*, 61 (1909), 47-76 orr.

³⁴ FERNANDEZ-D'ARILAS DE LA PEÑA, A., *op., cit.*, 343-368 orr.

grabatu bat (3. irudia). Bertan idiak, zaldiak eta zalgurdi eder bat ikus ditzakegu, antza bere zalgurdiak hondartzan bertan itxaroten zion bainua hartu ondoren hondarra ukitu gabe bertatik irten zedin.

Hondartzan urteak pasa ahala honelako etxola gehiago eraikitzen hasi ziren, horien artean 1887. urtean eraiki zena, estilo neogotikokoa. Oso ohikoa zen 30. hamarkadatik aurrera estilo honen erabilera kafe, denda edota hondartzetako



etxolatxoetan. Joera naturalista eta pintoreskoaren berreskurapen bat eman zen

3.irudia: George Carpenter-en grabatua. Iturria: San Telmo Museoa, Donostia.

garai honetan eta antza estilo honek horiek batzen zituen. Maria Cristina erreginentzat eraikia izan zen, luxuzko materialez eta osagarritz hornitu zuten, hormak muselina zuriz estaliak zeuden, eta landareak non nahi aurki zitezkeen.

Azkenik 1894. urtean eraiki zen etxola daukagu, honen egilea Manuel Echave izan zen. Estilo neo-arabe baten aurrean egongo ginateke, hau garaian gehien bat antzoki, kafetegi, kasino edota kioskotarako erabili zen, hau da, aisiarekin loturiko esparruetan ohikoa zen estilo honen erabilera. Estructura hau egiterako orduan erreferente gisara 1815-1822 urte bitartean Ingalaterrako printzearentzat eraiki zen Royal Pavilion-a hartu zen. Saretak, minareteak, bulbo formako kupulak, koloreen alternantziak ikus zitezkeen etxola honetan, oro har arabiar arkitekturako ezaugarriak. Baina etxola hau hamasei urtez martxan egon ostean, 1910. urtean diputazioak hau kentzea erabaki zuen, jada nahiko zaharkitua baitzegoen klima eta erabileraren eraginez³⁵.

Ordezko bat beharrezko ikusi zuten, egitura solidoagoa izango zuena, beraz, Conchako pasealekuan egitekoak ziren obrak aprobeztatuz marmol zurizko eraikina paseoan txertatu zuten. Hiru solairuko eraikin bat eraiki zen, paseoaren altueran geratzen zen goiko solairua, bertan, atondo bat eta terraza zabalak kokatu ziren. Honen azpiko solairuan, instalazio ezberdinak kokatu ziren, eremu guztia azulejo zuriz estali zuten eta leiho zabalak kokatu zituzten. Solairu honen erdian areto eder bat eraiki zen bertatik errail batzuk kanporatzen ziren, txalupa bat egon ohi zen. Honen bidez errege-erreginak

³⁵ FERNANDEZ-D'ARLAS DE LA PEÑA, A., *op., cit.*, 343-368 orr.

itsasora gertura zitezkeen hondarrik ukitu gabe³⁶.

4.2 Bainuetxea

Gidari jarraituz bigarren geltokia Conchako hondartzako bainuetxean egingo lukete bisitariak. Hondartzak 1887. urtean “Erret” titulua jaso zuen. Urte horretan eraikina altxatzeko lanak abian jarri ziren, toki paregabea baitzen honelako eraikin bat altxatzeko.

El Perlón deitua izan zen bainuetxe hau hasierako urte hauetan. Egurrezko barrakoi bat altxa zen hondartzara jaisteko zeuden bi arrapalen artean. Pinu egurrez egin zen eta gorri kolorez margotu zuten, teilatua teila gorritz estali zuten. Eraikinaren alboan dorre bat eraiki zen, honek

bainuetxera igotzeko igogailu funtzioa izateaz gain, gailurrean eraikineko ur-andela aurki zitezkeen. Bertan

aurkitzen ziren tximiniek itsasorako



4.irudia: R.Cortazarrek 1908.urtean sinatutako bainuetxearen planua. Iturria: <http://www.revistasansebastian.com/es/index.php>

bistak estaltzen zituzten, gainera tximinietako keak ingurua zikintzen zuten. Eraikina segituan zaharra geratzen hasi zen, itsasoaren ondoan egonik eta egurrezkoa izanik zahar itxura segituan hartu zuen.

Honela bainuetxe hau atzera geratzen ari zen Gipuzkoan eta Europan eraikitzen ari zirenekin alderatuz. Hori zela eta, 1908. urtean “La Perla” elkarteak proiektu berri bat aurkeztu zuen berria eraikitzeko³⁷. Horretarako, ingurua ere kontuan hartu behar zen, izan ere, udatiarren ohiko bilgune bilakatzen hasi zen Conchako pasealekua eta hau txikia geratzen hasi zen. Honela, Juan Rafael Alday (1870-1955) arkitektoak bainuetxea eta pasealekuaren inguruko proiektu bat prestatu zuen, gaur egun hiriaren sinboloa den

³⁶ *Ibid.*

³⁷ I.g., “El Perlón, antecesor del Balneario de La Perla”, *Revista San Sebastián*, 2015/07/05. Berreskuragarria hurrengo esteka honetan: http://www.revistasansebastian.com/es/noticias/pagina_4/2015/07/05/30/el-perlon-antecesor-del-balneario-de-la-perla.php (2017/04/08an kontsultatua)

barandaren egilea ere bera izan zen. Bertan ikus zitekeen pasealekua bost metro baino gehiago zabalduko zuela, honen azpian bainularientzat kabinak eta 120 metroko luzerako bainuetxea kokatu zituen. Bainuetxe eder bat eraiki behar zen, inguruko guztien gainetik nagusituko zena, honela Alday-ek M. Cortazarren laguntzaz “Nueva Sociedad de la Perla” eraiki zuen 1911. urtean, gaur egungo kokaleku berean. Arrakasta handiko proiektua izan zen, Conchako paseo guztiari batasuna eman zion, Kasinoa eta errege-erreginen jauregia lotuak geratu ziren³⁸.

Frantziako Bigarren Inperioan nagusitu zen estilo eklektikoaren baitan koka genezake eraikin hau. Goi mailakotasunaren adierazle zen monumentaltasuna eta elegantzia zituen oinarri. Eraikin horizontala, hondartzaren esparru nabaria okupatzen zuen. XIX. mendean honelako bainuetxeak batez ere Vienan eta Alemanian ere ikus zitezkeen, horren adibide dugu Baden Badenekoa hiria. Donostia hiri harekin konpara genezake.

Atsedean hartzeko gunea zen, beraz bezeroentzako erosotasun guztiak eskaintzen zituen eraikin bat altxa zen. Esan dugun moduan, horizontaltasuna zen nagusi, honekin itsasoarekin bat egitea lortu nahi zen. Hondartzaren altueran kokatu zela solairu nagusia ikus genezake, edozein momentutan itsasora joan nahi izanez gero arazorik ez izateko. Honekin batera eraikinaren barrualdetik, kanpoko paisaiatzat gozatzeko aukera ere kontuan hartu zuen arkitektoak, leiho zabalak ikusi zituen. Honekin batera atsedean hartzeko galeria zabalak eraiki ziren hondartzaren alboan.

Estetikari dagokionean, aipatu berri dugun moduan monumetalitatea eta elegantzia izan ziren oinarriak. Kokagunea ere ez zen nolana hiko, beraz horri eutsi beharra zion eraikinak. Egitura bainuak hartzeko erabiltzen zen soilik, baina honekin ikus genezake honelako aktibitate sinple bati zer nolako garrantzia ematen zitzaion garaian. Gaur egun hori plasmaturik geratu zaigu eraikin eder honen presentziarekin.

4.3 Jolas parkea

Goizeko bainuaren ondoren agian hoberena Conchako badiatik paseo bat eman

³⁸ I.g., “Los Bañerios en la Playa de la Concha”, *Revista San Sebastián*, 2015/06/06. Berreskuragarria hurrengo esteka honetan: http://www.revistasansebastian.com/es/noticias/pagina_4/2015/07/06/32/los-balnearios-en-la-playa-de-la-concha.php (2017/04/08an kontsultatua)

ondoren Igeldo Mendira igotzea izango litzake, bertan 1912. urtean atea zabaldu zituen jolas parkearekin egingo baitzuten topo bisitariek. Jolas-parke honen aurrekari gisa, albo batetik, Errenazimendu garaiko lorategiak izango genituzke, nobleziari plazer emateko sortu zirenak; dantza, jolasak eta su artifizialak izan ohi ziren haietan ikusgai. Bestalde Europako hiri nagusienetan egin ohi zituzten azokak ere aurrekari ditugu. Adibide gisara, Londreseko Vauxhall Pleasur Garden (1661) edo Frantziako *folies* parkea (1771) izango genituzke. Azken hau lorategi pribatuz osatua zegoen, jende dirudunak halakoetan antolatu ohi zituen euren gustuko ikuskizunak. Baina Frantziako parkeetan atrakzio ezberdinak ere aurki zitezkeen. 1800-1820 urte bitartean, Pariseko parkeetan lehen Errusiar Mendiak ikusten hasi ziren. Hasiera batean izotzezko txirristak ziren, egurrezko egituren gainean eraiki ohi ziren eta jendea zurezko plataforma txikien gainean irrifatuz jaitsi ohi zen. Lehengo aldiz hauek Errusian ikusi ahal izan ziren XVI. mendean. Baina, jendeak atrakzio hauek ez zituen oso seguruak ikusten, geroz eta bezero gutxiago gerturatzen ziren hauetara, honen aurrean parke askok atea itxi behar izan zituen. Ordea, XIX. mende amaieran mekanizazio prozesuarekin eta elektrizitatearekin atrakzio hauek seguruagoak egitea lortu zen, honela garai honetan jolas-parke ugari atea zabaldu zituzten, horien artean Donostiako Igeldo mendiko honek³⁹.

Jolas-parkea esan bezala Igeldo mendian kokatu zen. Muino honek 1838. urtean jasoz zuen lehenengo eraikina, itsas mailatik 200 metrotako altueran itsasargi bat eraiki zen. Baina urte gutxiz funtzionatu zuen, izan ere behe-lainoa zela eta ez zuen bere funtzioa egoki betetzen. Hortaz 1854. urtean itsasargi berria eraiki zen, arkitektoa Manuel Peironcely izan zen. 1911. urtean “Sociedad Anónima Monte Igeldo” elkarte sortu zen, Edouard Dupouy presidentea zelarik, hauek mendiaren buruan jolas parkea eraiki nahi zuten, horretarako lehenik eta behin, bertara igotzeko garraioan pentsatu zuten. Honela funikularra eraikitzeko proiektua martxan jarri zen, honen burua Luis Elizalde arkitektoa izan zen⁴⁰. Arrakasta handia izan zuen garraio bide honek, Gómez Belarrain-ek bere liburuan dion moduan, garraio bide berria zenez, parkeko atrakzio

³⁹ GÓMEZ, BELDARRAIN, L., *San Sebastián, historia de los parques de recreo a través de la tarjeta postal*, Barcelona, Ediciones Viena/ IDAZTI, 2005, 15-32orr.

⁴⁰ Begirada Lyoner (Frantzia) luzatu zuten donostiarrek bertan 1860. urtean eraiki zen funikularra. Donostian proiektua Emilio Huici ingeniariak proposatu zuen. 151 metroko desnibela zuen gunean funikularra ipini zuen.

nagusienetakotzat kontsideratua izan zen bisitariengandik⁴¹.

Helburua aisialdiko gune itzel bat eraikitzea zen Igeldo mendiaren buruan, udako egunetan jendez eta jai giroz jantziko zena. Horretarako zerbitzu ezberdinak eskainiko zituzten eraikin ezberdinak eraikitzen hasi ziren. Honela horietako bat jatetxea izango genuke. Gómez Beldarrainek dioenez, 1912an udaletxean jatetxearen planoak aurkeztu ziren, eta onartuak izan ziren. Hasiera batean hiru solairuko eraikin bat eraiki nahi zen, baina solairu bateko eraikinarekin konformatu ziren azkenean. 986 metro karratuko eraikina eraiki zen, jatetxe eder batekin. 1913 eta 1914 urte bitarteetan espazioa handitu egin zuten, solairu bat altxa zuten, bertan kasinoa eta ikuskizun-aretoa kokatu zituzten. 1965ean eraikina bota egin zuten gaur egungo Igeldo Hotela (1967) eraikitzeko.

Jolas-parkean eraiki, kasu honetan berritu, zen beste eraiki bat dorrea izan zen. Dorre honi erabilera berri bat eman zitzaion. Igeldo menditik hirirako bista zoragarriak zirela eta, dorre hau begiratoki bilakatu zuten. Hiriko bista ederraz gozatzera udatiar ugari gerturatzen ziren bertara. Bistez gozatzeko ere terraza ezberdinak eraiki



5.irudia: Iturria: Argazkilari eta ikuslea Ricardo Martín fotógrafo y espectador, Kutxa Fundazioa, Donostia- San Sebastián.

ziren dorrea eta jatetxearen inguruan (5. irudia). Terraza nagusia jatetxearen inguruan eraiki zen, hau hormigoizko biga eta pilarez sostengatu zuten, honela terrazaren azpian galeria moduko bat geratu zen, bertan *souvenirs* denda bat ireki zen⁴².

Parkeko atrakzioetan barneratuz, parkea inauguratu zen urtean ez zeuden atrakzio ugari. Foku nagusi bat dorrea bera izango litzateke, 30. hamarkadako lehen urteetan gaueko iluminazio eder bat jaso zuen, jende ugari hurbiltzen zen hau ikustera. Bestalde lehen urte hauetan patinatzeko pista edo *skating*-a egin zuten. Baina berrikuntza arrakastatsuen 1926. urtean heldu zen, *Railway*-a⁴³. Hau kasino itxi ondoren eraiki

⁴¹ GÓMEZ, BELDARRAIN, L., *op.*, *cit.*

⁴² *Ibid.*

⁴³ Hasierako urteetan *Errusiako Mendia* izenez zen ezaguna baina, Gerra Zibilaren ondoren *Suitzako Mendia* izendatu zuten, ziurrenik izen aldaketa hau arrazoi politikoengatik eman zen.

zen, aurretik aipatua izan den Primo de Riveraren diktadurarekin 1923.urtean jolasa debekatua geratu zen, hontaz, Kasino ugari beren ateak ixten hasi ziren, horietako bat hau izan zen. Atrakzio honek dorrearen muinoa inguratzen zuen, altuera-tarte handiak igoz, bidea harrik eta hormigoi armatuz egin zuten.

Bestalde jolas-parkean mota guztietako emanaldiak egoten ziren. Zoologiko txiki bat eta urmaelak eraiki ziren parkean, guztia udatarren aisialdirako mesedetan. 1931an atrakzio berri gehiago eraiki ziren, besteak beste, Barrearen Etxea, Karrusela eta Txoke Autoak. Baina gaur egunera arte iritsi zaigun atrakzio ezagunetakoa Kanoa Motordunen Putzua izango litzake, 1932an inauguratua⁴⁴.

Beraz ikus dezakegu parke hau era zuzen batean udatarrei zegoela zuzendua. Bertan udako egunak igarotzeko mota guztietako baliabideak zituzten eskuragarri.

4.4 Kasinoa

Igeldo mendiko atrakzioetan ibili eta bertako jatetxean bazkaldu ostean, gidak arratsaldea igarotzera hiriko beste eraikin batera zuzenduko lituzke bisitariak, kasino nagusira. Horretarako, Alde Zaharra eta Conchako badiaren tarteko eremura gertura beharko lirateke. “Sociedad Anonima Casino de San Sebastian” elkarteak sortu zenean, gaur egun dagoen eraikina altxatzeko lehen pausuak ematen hasi ziren, horretarako 1880.ean arkitektoen lehiaketa bat jarri zen abian, Adolfo Morales de los Rios eta Luis Aladrén izan ziren honen irabazleak⁴⁵. Hauek hiri turistiko nagusietako kasinoak ezagutzen zituzten, besteak beste, Ostende, Dieppe, Biarritz eta Montecarlokoak, beraz bazekiten honelako hiri batek zer nolako arkitektura baten beharra zuen⁴⁶.

Honela kasino eder bat eraiki zen, beste euskal hiriburuetan ez ziren honelakoak aurkitzen, esaterako Gasteizen XIX.mende amaieran Martin Saracibarrek diseinaturako Kasinoarekin alderatuko bagenu, ikusiko genuke aldea nabaria dela, Gasteiz ez zen uda igarotzeko ohiko helmuga bat beraz bertan ez ziren tipologia berri hauetan hainbeste zentratu, eraikinaren planoan ikus dezakegu burgesiaren etxe bizitzen itxura berbera


⁴⁴ GÓMEZ, BELDARRAIN, L., *op.*, *cit.*

⁴⁵ 15 proiektu aurkeztu ziren, hiru hoberenak Real Academia de S. Fernandoko kideek hautatu zituzten. Azkenik irabazleak Corporacion Municipal-en eskuetan geratu ziren.

⁴⁶ RODRÍGUEZ, SORONDO, M.C., *Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián*, Donostia- San Sebastián, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1985, 12orr.

zuela bertako kasinoak⁴⁷. Ez zen nabarmentzen inguruko eraikinen gainetik. Hortaz argi dago; hiri ezberdina zen, bertara gerturaten ziren bezeroak ere ezberdinak ziren, goimailako bisitariak hiriburu gipuzkoarrera gerturaten ziren, azken finean Donostia Europako hiri turistiko nagusienekin lehia baitzegoen. Horregatik bertan eraikitzen ziren eraikinek Frantziako Bigarren Inperioko estilo arkitektonikoa hartu zuten oinarri beste behin, estilo paregabea zen hiriari handitasun eta luxu irudia emateko, gainera Europan nagusitzen ari ziren hiri turistikoak, besteak beste Biarritz, estilo honetan barneratua zegoen.

Joera eklektikoaren barnean kokatu beharko genuke eraikin hau. XIX. mendean jaio zen estilo honen agerpenak artearen historian aldaketa ekarri zuela badakigu ikuspuntu historiko batetik, jatorri ezberdinetako elementu arkitektonikoak bateratzen hasi ziren tipologia berriak sortzeko intentzioarekin. Estilo honen erabilera oso ohikoa izan zen Napoleon III.aren garaian Frantzian. Esan genezake Frantziako hiri nagusienek eraldaketa arkitektonikoak jasan zituztela enperadore honen agindupean. Hiriak edertzen hasi ziren, monumentu ikaragarriak jaiotzen hasi ziren. Monumentaltasuna, luxua eta eklektizismoa izango lirateke garai hartako arkitekturaren ezaugarri nagusiak. Honela Paris eta Biarritz bezalako hiri turistikoak edertasunez jantzen hasi ziren. Eragin hori segituan heldu zen hiriburu gipuzkoarrera, ikusi dugun moduan gehienetan arkitekto frantsesen eskutik. Donostiak hiri ederra izan nahi zuen, haien pare egon behar zuen beraz honelako arkitektura baten beharra zuen. Horren adibide daukagu garaiko kasino nagusia.



6.irudia: Donsotiako Kasinoko jatorrizko planoak. Iturria: Euskal Herriko Arkitektura Ikerkundera: <http://intranet.pogmacva.com/en/obras/49219>

Hau 1887an inauguratu zen. Planoetan erreparatuz

(6. irudia) ikus dezakegu, oin-planta simetrikoko eraikina egin zela, sotoa eta beste bi pisuz osatua. Hiru pabiloiez osatutako eraikin bat zen, erdikoa nabarmentzen zen besteen gainetik bertan kokatu baitzen sarrera nagusia eskalinata baten amaieran, puntu erdiko hiru arkuren azpian. Oinarri gisa Charles Garnierren Montecarloko kasino hartu zela pentsa genezake (7. irudia). Bi eraikinak ikusten baditugu antzekotasun ugari

⁴⁷ Archivo Municipal de Vitoria Gasteiz/ Gasteizko Udal Artxiboa. Sig: 53-21-21 (10)

ikusiko ditugu. Ezaugarri komun nagusia monumentaltasuna eta eskala izango lirateke. Eraikin plastiko eta mugituak dira, ez dira batere estatikoak. Ezaugarri hau beraien funtzioarekin lot genezake, azken finean jokorako eta dibertsiorako eraikinak ziren, bezeroak erakarri behar ziren. Bisitariak barnera gonbidatu behar zituen eraikinak. Horretarako Adolfo Morales de los Rios eta Luis Aladrén arkitektoek eraikinaren bolumen ezberdinekin jolastu zuten. Abside formako terrazak, fatxadako sartu irtenak eta inposta lerro markatuak kokatu zituzten. Bestalde, fatxadan zehar Sevillako Cartujako zeramika gogoratzen digun zeramikaren presentzia ikus daiteke. Garai hartako arkitekturaren askotan erabili zen zeramika elementu dekoratzaile gisara, Euskal Herrira era honetako zeramika batez ere Alziratik (Valencia) heldu zen⁴⁸.



7. irudia: Montecarloko kasinoa 1856.urtean inaguratua. Iturria: <http://www.casinomontecarlo.com/>

Eraikin monumental honen elegantziak bat egiten zuten bestalde bertara gerturatzeko ziren bisitarien dotoreziarekin. Sozializatorako eraikin garrantzitsua zen barnean biltzeko areto eder ugari aurki zitezkeen. Grandiok bere lanean gogoratzen digu, emakume eta gizonentzako estantziak bananduak kokatu zirela, emakumezkoen esparruetan pintura,

tela eta artisau produktu oso barrokoak aurki zitezkeen, dekorazioa Maria Antonieta-ren estantzietan inspiratua zen, Petit Triatón-eko estantziaatan hain zuzen (Luis XVI, Versailles). Aldiz, gizonentzako ziren aretoak ez zeuden oso dekoratuak, esparru oso soilak ziren⁴⁹.

Eraikiaren edertasunak bat egiten zuen bere inguruarekin, Alderdi-Eder izeneko lorategiaren parean kokatu zen, esparru honen diseinatzailea Pierre Ducasse lorezaina izan zen. Honek hirira lorategien tradizio frantziarra ekarri zuen, lorategi geometriko eta tipologia urbano modernoa ekarri zituen, benetako eskola sortuz. Gaur egun horren ezagunak diren tamarindoak, berak landatu zituen. Udan lorategi hauek burgesia eta goi-mailako jendearen bilgune nagusi bilakatzen zen, sozializatorako gune

⁴⁸ RODRÍGUEZ, SORONDO, M.C., *op.*, *cit.*

⁴⁹ GRANDIO, Y., *Urbanismo y arquitectura ecléctica en San Sebastián 1890-1910*, Donostia, Grupo de camino de historia donostiarra, 1987.

garrantzitsua zen hau ere. Bertan olgeta eta jolas ugari ospatzen ziren, besteak beste, “El Gran Circo” edota “El Infantil Guipuzcoano” deituriko antzerkiak ikus zitezkeen⁵⁰. Hirian honelako guneek garrantzi handia zuten. Cortazarren hiriaren berregite proiektuan irakur dezakegun moduan, Donostia oso hiri pintoreskoa zen, horregatik beharrezkoa ikusten zuen hiriaren planoetan honelako esparru libreak eraikitzea, hiriaren edertasun naturalarekin bat eginez⁵¹. Esparru libre hauek sozializatorako gune nagusi bilakatu ziren segituan.

Eraikinarekin amaituz, honek 1924.urtean ateak itxi zituen, hau jokoaren debekuaren ondorioz eman zen⁵².

4.5 Antzokia:

Gidari jarraituz, arratsaldean udatiarrak Boulevardera gerturatu lirateke bertako kioskoan ospatzen ziren kontzertuen doinuez gozatu eta pareko Restaurant del Café del Norte jatetxean zerbait afaltzeko intentzioarekin. Baina behin gaua iristean kale hau hutsa geratzen zela ohartuko lirateke, gauerako sozializatorako gune berriak ere jaio baitziren, hortaz jendea hauetara gerturatzen zen. Antzokiei buruz ari gara hain zuzen. Eraikin hauek garai honetan garrantzi handia izan zuten, eraikin ederrak altxa ziren European eta nola ez Donostian. Victoria Eugenia antzokia, 1902. urtean izan zen inauguratua, hirian Sociedad de Fomento elkarteak sortu zenean. Urumea ibaiaren ondoan eraiki zen, lehiaketa baten bitartez aukeratu zuten irabazlea, Francisco Urcola arkitekto donostiarra hain zuzen.

Honela 1909an platereskora itzultzen zen eraikin bat inaguratu zen. 1900 urtean Parisen Esposizio Unibertsala ospatu zen, bertan, Jose Urioste Velada arkitektoak Espainiako pabiloia aurkeztu zuen, hau hain zuzen errenazimenduan garatu zen estilo platereskoan

⁵⁰ SADA, J., HERNANDEZ, T., *Historia de los casinos de San Sebastián, siglos XIX y XX*, Donsotia-San Sebastián, Nuevo Gran Casino del Kursaal, 1987.

⁵¹ CORTAZAR, A., *Memoria descriptiva del proyecto de Ensanche de San Sebastián presentado al concurso con el lema "Porvenir"*, Donostia-San Sebastián, Imprenta de Ignacio Ramón Baroja, 1864.

⁵² Kasinoa itxi ostean, eraikinak hainbat urteetan zehar funtzio ezberdinak izan zituen, esaterako 1924.urtean Gurutze Gorriko ospitale bezala erabili zen, ondoren, 1930.urtera arte festa eta bilerak egiteko erabili zen. Honela 1930.urtean ateak itxi zituen 1947.urtera arte, orduan udaletxe izatera igaro zen.

eraiki zuen, garai honetan Real Akademia de San Fernandok babesten zuen iraganerako tradizioetarako itzulera hartu zuen kontuan. Honek helburu bat zuen, 1898ko desastrearen ondoren geure iraganeko momenturik gogorenak gogoratzea, besteak beste neo-platereskoa eta neo-barrokoa garatzen hasi ziren. Urcolarentzat beraz estilo hau egokia zen hiriko antzoki nagusia altxatzeko. Hirian jaiotzen ari ziren beste eraikin guztien monumentaltasunarekin bat zetorren.

Eraikin hau goi-mailako jendearen egunerokotasuneko esparru bat bilakatu zen, jende dotorea gerturatzeko zen bertara (8. irudia). Antzokietan XVIII. mendetik aurrera agertokiaz gain beste hainbat esparru jaiotzen hasi ziren, sozializatorako guneak izango zirenak. Hala nola, kafetegiak, atariak eta saloiak besteak beste, olgetarako gune nagusiak ziren. Espazio hauen jaiotzak bat egin zuten turismoa eta aisialdiaren garrantziarekin. Honelako estantziei garrantzia, Turín-eko Afieri eta Regio antzokietan ematen hasi zitzaizen lehen aldiz (1738-40)⁵³.



8.irudia: Garaiko emakume dotorea Vitoria Eugenia antzokiaren sarreran. Iturria: <https://www.victoriaeugenia.eus/?idioma=eu>

Donostiako eraikin honetan hauen presentzia ere nabaria zen, hauek batez ere beheko solairuan kokatu ziren, sarrera nagusiaren alboan, baina goiko solairuetan ere aurki zitezkeen olgetarako guneak. Hauek itsasora ematen zuten terraza zabalak izango lirateke. Bestalde antzokiko esparru nagusian barneratu aurretik, eraikin honetan bazen beste esparru garrantzitsu bat; marmolezko eskailera. Hau eraikinaren elementu bateratzailea izateaz gain, bezeroek nabarmentzeko gune bezala ere erabiltzen zuten. Napoleseko San Carlo antzokian (1737) lehen aldiz esparru hau handitasun eta aberastasunez jantzi zen esparru publiko garrantzitsu bihurtzeko intentzioarekin.

Antzokiko esparru nagusian barneratuz, agertoki eta besaulkien esparruari dagokionean zirkulu formako eremu bat eraiki zen, palko ederrez inguratua zegoen, bat Erret

⁵³ FERNANDEZ MUÑOZ, A., “Espacios de la vida social: Los <<otros>> espacios de la arquitectura teatral”, in I.g., *Arquitectura teatral en España*, Madrid, Servicio de Publicaciones Secretaría General Técnica, MOPU, 1985, 64-79orr.

familiarentzat zegoen gordea eta bestea Donostiako udalarentzat, gainerakoak goimailako dirudunek edota kanpoko bisitari ospetsuek okupatzen zituzten. Begirada gehienak palko hauetara zuzentzen ziren, azken finean palko hauetan ez zen nolana hiko jendea esertzen. Esparru hauek naiz plateak, beste behin nabarmentzeko guneak ziren, hiritarrak beren jantzi hoberekin bertara gerturatuko ziren.

Barnealdeek jendearen dotoreziarekin bat egiten zuten, agertokiko esparruak Pariseko operara eramango ginduke. Gaur egun barnealdera sartzen bagara, urre eta kolore gorritz jantzia dagoela ikusiko dugu. Garaian belusezko errezel gorriak, urre koloreko erremateak, eta sabai ikusgarriak ezarri baitziren. Berriro ere Donostiako hiria Frantziako Bigarren Inperioko estiloaren handitasunaz baliatzen ariko litzateke esparru dotore eta erakargarri bat lortzeko asmoarekin.

Kanpoaldetik esan bezala, Urcola arkitektoak irudi platereskoa aukeratu zuen, joera historizistara gerturatu zen, iraganeko handitasuna erakusteko intentzioarekin. Eraikin ederra, hiriko dotoreziarekin eta bertara gerturatzen ziren bezeroen elegantziarekin bat eginez beste behin. Yasmina Grandioren lanean irakur dezakegunarekin bat eginez kanpoaldetik Salamankako Monterrey jauregi platereskoa gogora dakiguke, jauregi eder eta monumental honek⁵⁴. Donostian beharrezkoa zen honelako antzoki bat izan ere Europan jada honelako eraikinak oso ezagunak ziren, esaterako Vienako Estatu Opera (1869), estilo neoerrenazentista batean altxa zen. Eraikin ikusgarria, monumentala hau ere hiriari ospea emateko asmoarekin eraikia. Beraz Donostiak ezin zuen atzean geratu eta eraikin eder hau eraiki zen.

Ikus dezakegu antzokia ere olgetarako beste gune garrantzitsu bat izan zela hirian, ziurrenik askotan bertara jendea nabarmentzera besterik ez zen joango, ikuskizuna bigarren plano batean utziz.

5. Ondorioak

Beraz ikusi dugun moduan Donostia XIX. mendearen hasieran hiri txiki bat zen, bertan ez zegoen industriaren presentziarik hortaz bide berri bati eutsi beharra zion aurrera atera ahal izateko. Bere edertasun naturalaz baliatu zen eta Europako hiri turistikoaren arteko lehiaketan barneratzen hasi zen pixkanaka. Horretarako erakarpen berriak behar

⁵⁴ GRANDIO, Y., *op., cit.*

zituen, honela Bigarren Inperioko estilo arkitektonikoaz jantzi zen XIX. mende erdialdetik XX. mende erdialdera arte. Eragin hau Frantziatik etorri zen bertan baitzeuden Europako hiri turistiko nagusiak, besteak beste Biarritz. Honela bere edertasun naturala, arkitektura liluragarriarekin bateratu zuen, bisitari geroz eta gehiago erakartzeko intentzioarekin.

Gaur daukagun hiria XIX. mendearen bigarren erdialdean bultzatutako emaitza da. Egun duen nortasun dotore eta eder hori garai honetan eskuratu zuela esan genezake, eraldaketa honen oinarri turismoa izan zen ikusi dugun moduan. Begirada atzerrian ezarri behar izan zuen hiriak, batez ere Frantzia baina Montecarlo eta Baden Baden. Hiri hauek ezaugarri komun bat zutela esan genezake ospea lortu aurretik, guztiak industriarik gabeko guneak ziren, hiri ederrak ziren, naturaz inguratuak zeuden. Hortaz ezaugarri horietaz baliatu ziren Europa mailan turismoaren bidez ezagutarazteko.

Hiri hauek Donostiarekin batera kontinentean zabaldua zegoen joera eklektikoa eta aipatu berri dugun Bigarren Inperioko estilo arkitektonikoen handitasunaz eta edertasunaz balitu ziren.

Honekin batera edertasun horri eusteko asmoz, langileri klasea hiriaren erdigunetik baztertua izan zen. Hiri hauek langile auzo eta herriez osatutako gerriko batez inguratuak geratu ziren, erdiguneak edertasun eta dotoreziarentzat erreserbatuak geratu ziren. Gaur egun argi ikus ditzakegu garai hartan hartu ziren erabakien ondorioak. Donostiaren erdigunea etxebizitza eta eraikin ederrez hornitua dagoen bitartean, inguruko auzoak, besteak beste, Altza, Trintxerpe edota Añorga auzoak, XIX. mendean era azkar, merke eta masiaboan eraiki ziren etxebizitza-blokez daude osatuak. Bisitariarentzat ez dira batere erakargarriak eta gaur egun ere bertan langileri klasea bizi da, alokairuak Donostiako zentroan baino asmoz ere merkeagoak baitira. Hiriaren zentroan etxebizitzak goi-mailako klasearentzat izaten jarraitzen dute, alokairuak hauek bakarrik ordaindu baititzake eta.

Beraz gaur egun hiriak XIX. mendearen erdialdean hartu zuen bide horretatik jarraitzen duela ikusten dugu. Urtetik urtera geroz eta bisitari gehiago gerturaten dira, Noticias de Guipuzkoak 2017ko urtarrilaren 17an argitaratutako artikuluan ikus dezakegun moduan 2016an Gipuzkoa eta batez ere Donostiak marka hautsi dute bisitarien bisitei dagokienean⁵⁵.


⁵⁵ <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2017/01/19/sociedad/euskadi/gipuzkoa-registra-una-cifra-record-de-pernoctaciones-en-2016-con-un-crecimiento-neto-del-94> (2017/06/01 kontsultatua)

Gainera datozen urteetako marka hauek gainditzea da helburua, nahiz eta Gipuzkoako Diputazioko turismo saileko buruak esan duenez hazkunde hau kontzientziaz egin beharrekoa dela, helburua ez dela helmuga “saturatzea”. Baina Donostiara udan gerturatzea besterik ez daukagu turismoa ze egoeretan dagoen ikusteko, ia atzerritarren presentzia nabariagoa da bertakoena baino. Agian orain beste mota bateko hirien pare jartzen ari da Donostia, XIX. mendean Biarritz, Baden Baden edota Mortecarlo moduko hiri lasai eta ederren pare jarri bazen, orain agian Veneziaren pare jarri beharko genuke, turismo masiboa jasotzen duen hiri nagusienetako bat da, honen ondorioz hiriaren azpiegiturretan arazoak izaten ari dena (9. irudia). Donostiak bide honetatik jarraitzen badu agian beste irudi batera ohitu beharko ginatke, jarraian daukaguna agian (10. irudia)? Venezian liskarren artean daude honen aurka, hona helduko ote da hau?



9.irudia: Venezia. Iturria :

<http://www.elmundo.es/elmundo/2013/10/10/cultura/1381390983.html>



10.irudia: Donostia-San Sebastián. Iturria: Pinterest.

6. Bibliografía

Idazlan orokorrak:

ARTOLA, M., *Historia de Donostia- San Sebastián*, Donostia-San Sebastián, Nerea, 2004.

ARSUAGA, M., SESE, L., *Donostia- San Sebastián: guía de arquitectura*, Donostia – San Sebastián, COAVN, 1996.

GARCIA MELERO, J.E., *Literatura española sobre artes plásticas II*, Madrid, Ediciones Encuentro 2002, 195-202.

GÓMEZ, BELDARRAIN, L., *San Sebastián, historia de los parques de recreo a través de la tarjeta postal*”, Donostia/Barcelona, Ediciones Viena/ IDAZTI, 2005

GRANDIO, Y., *Urbanismo y arquitectura ecléctica en San Sebastián 1890-1910*, Donostia- San Sebastián, Grupo de camino de historia donostiarra, 1987.

I.g., *Arquitectura teatral en España*, Madrid, Servicio de Publicaciones Secretaría General Técnica MOPU, 1985.

MARTÍN RAMOS, A., *Los orígenes del ensanche Cortazar de San Sebastián*, Barcelona, Archithemas, 2004.

MUÑOZ ECHABEGUREN, F., *¿Qué sucedió en San Sebastián el año 1813?*, Donostia- San Sebastián, Michelena, 2013.

MUÑOZ, F., *San Sebastián: Historia y anécdota de sus fiestas*, Donostia-San Sebastián, Donostia-kultura, 2010.

MURUGARREN, L., *San Sebastián Donostia*, Donostia- San Sebastián, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1978.

RODRÍGUEZ, SORONDO, M.C., *Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián*, Donostia- San Sebastián, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1985, 12orr.

Idazlan zehatzak (monografiak eta artikuluak):

ALCAIDE, R. “La introducción y desarrollo del higienismo en España durante el siglo XIX. Precursores, continuadores y marco legal de un proyecto científico y social” *Scripta Nova. Revista electrónica de Geografía y Ciencias Sociales* 50, 15/10/1999. Eskuragarri hurrengo esteka honetan: <http://www.ub.es/geocrti/sn-50.htm>

BEASCOECHEA, J.M., “Veraneo y urbanización en la costa cantábrica durante el siglo

XIX: Las playas del abra de Bilbao” *Historia contemporánea*, 25, 2002.

FERNANDEZ CUESTA, G., “San Sebastián: un modelo de construcción de la ciudad burguesa en España”, *Ería*, 88 (2012).

FERNANDEZ-D’ARLAS DE LA PEÑA, A., “Una incursión en el patrimonio marítimo donostiarra. Las casetas de baño, germen de la arquitectura balnearia”, *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 6 (2009), 343-368 orr. Online, Hurrengo esteka honetan eskuragarri: http://um.gipuzkoakultura.net/itsasmemoria6/343-368_fernandezdarlas.pdf (2017/04/06)

LARRINAGA, C., *Balnearios guipuzcoanos, 1776-1901. Turismo de salud e inversión de capital en aguas minerales*, Donostia- San Sebastián, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País – Comisión de Guipúzcoa, 2014.

SADA, J., HERNANDEZ, T., *Historia de los casinos de San Sebastián, siglos XIX y XX*, Donostia- San Sebastián, Nuevo Gran Casino del Kursaal, 1987.

SCHLÜTER, R., “Mujer y turismo. Vestimenta e interacción social en los centros turísticos de Argentina durante la década de 1930”. *Cuadernos de Turismo*, 21 (2008), 181-199 orr.

VALERO, A., “Chemin de fer et tourisme. L’exemple de Norte Principal (1877-1930) *Mélanges de la casa de Vélasquez (epoque contemporaine)* XXVII, 3, 1991, 5-46orr. eskuragarri hurrengo esteka honetan: http://www.persee.fr/doc/casa_0076-230x_1991_num_27_3_2592 (2017/05/31)

Iturriak

Archivo Municipal de Vitoria Gasteiz/ Gasteizko Udal Artxiboa. Sig: 53-21-21 (10)

CASTELL, A.M., “El veraneo en San Sebastián”, *Euskal-Erria: revista bascongada*, 49 (1903), 63-64 orr.

CORTAZAR, A., *Memoria descriptiva del proyecto de Ensanche de San Sebastián presentado al concurso con el lema "Porvenir"*, Donostia-San Sebastián, Imprenta de Ignacio Ramón Baroja, 1864.

I.g, *Guía ilustrada para el viajero en San Sebastián*, Donostia- San Sebastián, Al y Mar, S.L., 1998.

MADRAZO, F., *Una expedición a Guipuzcoa en el verano de 1848*, Madrid, Imprenta de Don Gabriel Gil, 1849.

LÓPEZ ALÉN, F., “Cosas donostiarras. Las primeras casetas”, *Euskal-Erria: revista*

bascongada, 61 (1909), 47-76 orr.

Bestelako baliabideak: (baliabide elektronikoak)

I.g., “El Perlón, antecesor del Balnerario de La Perla”, *Revista San Sebastián*, 2015/07/05. Berreskuragarria hurrengo esteka honetan:
http://www.revistasansebastian.com/es/noticias/pagina_4/2015/07/05/30/el-perlon-antecesor-del-balnerario-de-la-perla.php (2017/04/08)

I.g., “Los Balnearios en la Playa de la Concha”, *Revista San Sebastián*, 2015/06/06. Berreskuragarria hurrengo esteka honetan:
http://www.revistasansebastian.com/es/noticias/pagina_4/2015/07/06/32/los-balnearios-en-la-playa-de-la-concha.php (2017/04/08)

Koldo Mitxela liburutegia, hemeroteka digitala:
<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAzokoPrensaWEB/izenburuAurkibidea.do?lang=eu>

Noticias de Guipuzcoa.
<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2017/01/19/sociedad/euskadi/gipuzkoa-registra-una-cifra-record-de-pernoctaciones-en-2016-con-un-crecimiento-neto-del-94>
(2017/06/01)

Irudiak:

1. Irudia: Donostia San Sebastián, Untzi Museoa.
<http://untzimuseoa.eus/es/component/content/article/397-san-sebastian-planos-de-poblacion-1900-1920> (2017/05/20)
2. Irudia: *Mensajes desde la pared*, Bilboko Arte Ederren Museoa- Museo de Bellas Artes de Bilbao, Bilbo, 2015/10/06- 2016/01/18.
3. Irudia: San Telmo Museoa:
<https://www.santelmomuseoa.eus/index.php?lang=eu> (2017/05/19)
4. Irudia: Revista San Sebastián
http://www.revistasansebastian.com/es/noticias/pagina_4/2015/07/06/32/los-balnearios-en-la-playa-de-la-concha.php (2017/04/08)

5. Irudia: *Argazkilari eta ikuslea Ricardo Martín fotógrafo y espectador*, Kutxa Fundazioa, Donostia- San Sebastián, 2016/11/04/-2017/01/22.
6. Irudia: Euskal Herriko Arkitektura Ikerkundera:
<http://intranet.pogmacva.com/en/obras/49219> (2017/04/08)
7. Irudia: <http://www.casinomontecarlo.com/> (2017/05/22)
8. Irudia: <https://www.victoriaeugenia.eus/?idioma=eu> (2017/05/23)
9. Irudia: <http://www.elmundo.es/elmundo/2013/10/10/cultura/1381390983.html>
(2017/05/22)
10. Irudia: Pinterest
[https://es.pinterest.com/search/pins/?q=bahia%20de%20la%20concha&rs=typed&term_meta\[\]=bahia%7Ctyped&term_meta\[\]=de%7Ctyped&term_meta\[\]=la%7Ctyped&term_meta\[\]=concha%7Ctyped](https://es.pinterest.com/search/pins/?q=bahia%20de%20la%20concha&rs=typed&term_meta[]=bahia%7Ctyped&term_meta[]=de%7Ctyped&term_meta[]=la%7Ctyped&term_meta[]=concha%7Ctyped) (2017/05/22)